

## **MOZIO ARRUNTA, DONOSTIAN ZEZEN FESTAK EGITEARI BURUZKOA**

### **UDALBATZAREN BURUARI**

Donostia Antitaurina Orain Plataformak hala proposatuta, Irabazi-Ganar Donostiak eta EH Bilduk, Amaia Martin eta Amaia Almirall beren bozeramaileen bitartez, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNTA aurkezten dute Udalbatzan azter dadin, Donostian zezen festak egitea dela-eta.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Aldaketa globala nagusitzen ari da gure garaiotan eta, seguruenez, aldaketen garaian baino, garaiaren aldaketan sartuta gaude. Gure mundua “beteta” dago ekologikoki, eta gizakiaren ekintzek duten esanahi etikoa oso desberdina da aurreko mendeetako mundu “bete gabean” zutenaren aldean. Azken finean, onartu behar dugu bizitzaren bilbearen osagaietako bat garela eta ko-eboluzio harmoniatsua lortu behar dugula gizakiaren eta gainontzeko izaki bizidunen artean, eta hori da jarraitutasuna begien bistako egiteko modurik onena.

Azken urteotan nabarmen hazi da animalien ongizateari buruzko kezka. Gizartea izan da, gainera, eskaera hori gehien bultzatu duena. Europako araudi zabal baten ondorio logikoa izan da, neurri batean, animalien babes eta ongizateari buruzko jarraibide batzuk ezarri baitzituzten arau horiek, ekoizpenean, maneatzean, erabiltzean, garraiatzean eta hiltzean beharrezkoak ez diren sufrimendu alferrikakorik izan ez dezaten. Zoritxarrez, Europako Batasunak salbuespen bat egin zuen gizarte ongizateari dagokionez. Izan ere, Batasuneko kide diren estatuen lege eta administrazio xedapenak, bai eta ohiturak ere, errespetatzea erabaki zuen, batez ere, erlijio errituei, tradizioei eta kultur ondareari dagokienez. Hala, bada, oraindik onartzen dira animaliak torturatzen dituzten zezen festak Euskadin.

Europako legeek esplizituki aitortzen dute animaliak izaki sentikorrak direla, eta helburu dute beharrezkoa ez den mina eta sufrimendua jasan behar ez izatea. Bai Amsterdamgo Itunak bai geroago egin zen Lisboakoak lehentasuntzat jo zuten animalien ongizatea. Bestalde, gizarte ongizatea lehentasuna da Animalien Osasunaren Mundu Erakundearentzat –2004an egin zuen bere lehen biltzarra gai

horretaz-. Azken urteotan, gero eta garrantzi handiagoa ematen ari zaie animalien ongizateari buruzko araudiei, hainbat alderdi direla-eta, hala nola:

-animaliekin zerikusia duten diziplinak hobeto ezagutzea, hala nola, beren jokaera, estresaren fisiologia edo animaliak behar bezala maneiatzeko moduak

-animalien beharrei buruz kontzientziazio sozial handiagoa dago eta, bai moralaren aldetik bai ekonomiaren aldetik, justifikatu gabekotzat eta onartezintzat jotzen diren abusuak gaitzetsi egiten dira

Hamabost urte baino gehiago iragan dira Donostia Arena zezen plaza eraiki zenetik, donostiarren iritzia kontuan izan gabe. Urte hauetan, 700 zezen eta beste hainbeste zekor hil dira, Aste Nagusian eta beste festa batzuetan. Zorionez, gero eta gehiago dira zezenen sufrimendua eta heriotza onartzen ez dituzten pertsonak. Hala erakutsi zuen Gallup enpresak 1993an egindako iritzi-azterketarekin: Gipuzkoako biztanleen %72-i ez zitzaizkion interesatzen zezenketak. Zer esan dezakegu 22 urte beranduago? Aste Nagusi honetan Illunben zezenketak egitea aurreikusita dagoela argitaratu zenetik, 12.000 sinadura baino gehiago bildu dira, alkateari eskatzeko praktika zaharkitu eta krudel hori berriro ez errepikatzeko.

Gure iritiz, animaliek, mina eta sufrimendu fisiko eta psikikoa sentitzen dituzten izakiak izanik, beren ezaugarri psikologikoekin bat bizitzeko eskubide naturala dute eta gizarteak, oro har, eta, batez ere, erakundeek defenditu eta babestu behar dituzte. Horrenbestez, Donostia bezalako hiri etiko eta aurreratu batek, bere biztanleen ongizateaz arduratzen denak, ezin du animalien sufrimendua sustatzen duen ikuskizunik eskaini, haien sufrimendu psikiko eta fisikoari ez ikusiarena eginez.

Horiek horrela, honako mozioa aurkezten dugu:

## **MOZIO ARRUNTA**

**1.- Donostiako Udalbatza udal instalazioetan animaliei tratu txarra edo sufrimendu fisiko nahiz psikikoa ekartzen dion edozein ekitaldi publiko egitearen kontra dago eta, bestalde, animaliei tratu zuzen eta etikoa emateko kontzientziazio kanpainak sustatzeko hitza ematen du.**

**2.- Donostiako Udalbatzak defendatzen du tauromakia ez dela Donostiako kultur balio bat, ez eta bere herritarrena ere, eta, hortaz, ez dugula sustatu behar ez 2016ko Kultur Hiriburutzari begira ez Europari begira, oro har. Donostiak hiri antitaurinotzat jotzen du bere burua.**

**3.- Donostiako Udalbatzak hitz ematen du udal instalazioak alokatzeari edo lagatzeari buruzko arauak aldatuko dituela, halakorik bada, haietan zezenketarik egin ez dadin. Horrekin batera, bultzatuko du instalazio horiek erabiltzea animalien errespetu eta ongizatearekin bateragarri diren beste ekintza batzuetarako.**

**4.- Donostiako Udalbatzak, aurreko puntuarekin bat, Ilunbe pabiloian zezenketak egiteko ezarritako berariazko prezio hobariduna kentzea sustatuko du.**

**5.- Donostiako Udalbatzak Mozio Arrunt honen onarpenaren berri emango die honako erakunde hauei: DSS2016EU Fundazioari, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren Jarraipen Batzordeari, Europako Batasuneko Hezkuntza eta Kultur Zuzendaritza Nagusiari eta Europako Parlamentuko Ingurumeneko, Osasun Publikoko eta Elikadura Segurtasuneko Batzordeari.**

**Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga**  
EH Bildu udal taldeko bozeramailea

**Amaia Martin Garin**  
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea

Donostia, 2015eko uztailaren 17an